

NON HAIZ, BIZAR ZURI PIRATA?

"Hire errautsetarik bakoitza sar dadiela handiki, zapaltzaile-faxista banaren ezkerreko begian eta egin diezola traba sekulako. Hala biz!"

Felipe Bergara

Martxoak 21, ostirala:


Kale Nagusia doinu, ahaire bereziz jantzirik nabari da, ez da arraroa izaten kale honetan musika entzutea baina gaurkoa ez da ohikoa, doinu malenkoniatsu eta aldi berean alaia iristen zaigu belarri-zuloetara kale honetan barna gabiltzanoi. Batetik tristura eta bestetik oldarra, sendiarazten digun ahaire saihestezina, hezur muinetaraino sartzen den horietakoa.

– Zer dun oi?

– Etzakiñet, Txerrimuñon aitzen ttun txalaparta jotzen, ta oixe izangoun ...

– Aa! Oixe izangoun, bai

– Alee, ez tun txalaparta bakarrik, beste zerbatte re aitzen dun...



Marc Legassen Idazle handiaren lezoar senideen bizilekua

Hauxe da goizean enkargutara atera diren etxekoandreen solasa. Denek aditzen dute zerbait, zer ordea? Kale osoan nabaritzen da doinu berezi hori baina pixka bat erreparatuz gero, ahairea Pikandia edo Jamot-enea etxetik heldu dela ohartuko gara. Kale Nagusiko 16.etik, alegia. "Artixtan bat etorri ote da itxiorta?" Kale honetan bada lehen ere txistulari, dultzainari, trikitilari eta abeslaririk baina txalapartari edo arpajolerik?

Egin Irratiko albistegiak argitu ditu kontuak, abertzale bezain gizon handi zen idazlea joan zaigu goizaldean, Euskal Herriko zeru gainean izar beltz bat piztutzero; Marc Légasse.

Martxoak 30, igandea (Aberri Eguna:)

Gaur, Aberri Egun honetan, hire errautsak Ibañetako lepoan, Orrian, hire lagunak, HAIZeri eta LURri eman dizkieten honetan, jakin ezak Jaizkibel magaleko hire Lezo kuttunak bizirik gordeko duela hire zuzia, iraupenaren, euskal izatearen zuzia. Aiton-osa-ba Gaudioso Zelaiaren arpa eta txalaparta astinduko ditiagu hautsak har ez ditzan eta

orain arte etengabe entzun den euskal doinua isil ez dadin. Euskal erresistentziaren sinbo-
loa haiz, korrante guzien aurka bada ere, iraun beharra dagoela erakutsi diguna, etsi gabe
eutsi beharra dagoela esan diguna, duintasuna eta izatea baitaude jokoan. Bakarrik geldituko
bagara ere, azkenerainoko erronka duk hau, izan ala ez izan.

Zainduko ditiagu hik hain gustuko hituen arpa eta txalapartaren doinuak, zainduko ere
euskal elea, herri honen arnasa. Karabinak eskuz esku ibiliko dituk askatasuna erdietsi
artean –Lezokoa hartu dik dagoeneko beste gazte batek–. Lezon, hire beste leku kuttune-
tan bezala, gudan biziko haiz, agure hori! Hi bezalako agure kaskagogor eta biziak behar
ditik herri honek, botereari begiko zakarrak baino traba handiagoa egiten diotenak. Hik
hemen, Andreoneko atalaian, behin esan huena ekarriko diat gogora, artean gaztetxoak
nintzen eta aski erranahi handikoa iruditzen zaidak: “Lezora, euskalduna, ez da honez
gero esku-haurrak elkartuta errezora etortzen, ukabila jaso eta borroka egitera baizik”.

Habilen tokian Lezoko kale-garbitzailea ikusten baduk emaitzikiok goraintziak gure par-
tez. Marc Légasse, Markox edo Marko Legatza, independentziaren egunean harrapatuko
dugun legatza! Egongo gattuk hi...

Joxe Luix Agirretxe

